

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatuaren 30/2021 Foru Agindua, otsailaren 18koa, Sobrongo 1 poligonoko 434 lurzatian telefonia mugikorreko deien banagunea eraikitzeke proiektuari buruzko ingurumen-inpaktuaren gaineko txostena ematen duena

“Sobrongo 1 poligonoko 434 lurzatian (Lantaron) telefono mugikorreko deien banagunea eraikitzeke proiektua”ren izapidetzea ingurumen inpaktuaren ebaluazio sinplifikatuaren prozeduraren mende dago, 21/2013 Legeak, ingurumen ebaluazioari buruzkoak, 7. artikuluko 2. epigrafeko b) apartatuan ezarritakoaren arabera. Prozedura aipatutako legearen 45., 46., 47. eta 48. artikuluek arautzen dute.

Prozedura honen esparruan, 2020ko azaroaren 12an Arabako Foru Aldundiko Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuan Lantarongo Udalaren idazki bat sartu zen, Telefónica Móviles España SAU sustatzailearen informazioa helaraziz, goiburuko proiektuaren ingurumen-inpaktuaren ebaluazio erraztuko prozedura izapidetzen hasteko. Idazkiarekin batera, ingurumen agiria ere erantsi zen.

Arabako Foru Aldundiko Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuak kontsultak egiteko aldiari hasiera eman zion eragindako administrazio publiko eta pertsona interesdunei dagokienez, 21/2013 Legearen 46. artikuluan ezarritako moduan.

Ingurumen eta Hirigintza Zuzendaritzak eskatuta, Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuak 2021eko otsailaren 8an emandako ingurumen-inpaktuari buruzko txostenean ezarritako balorazioa, zehaztapenak eta baldintzatzaileak jaso ditu foru agindu honek. Foru agindu hau egitea eta ALHAOn argitaratzea bat dator 21/2013 Legearen 47. artikuluko hirugarren zenbakian jasotako xedapenekin. Ingurumen-inpaktuari buruzko txostenak bere indarra galduko du ALHAOn argitaratu eta lau urteko epean goiburuko proiektua baimendu ez balitz, abenduaren 9ko 21/2013 Legeak, ingurumen ebaluazioarenak, 47.4 artikuluan xedatutakoaren arabera.

1. Proiektuaren ezaugarrien laburpena. Ebaluatu nahi den eremu geografikoa. Aztertutako aukerak

1.1. Proiektuaren ezaugarrien laburpena:

Sustatzaileak aurkeztutako dokumentazioan azaltzen denez, proiektatzen den instalazioa Outdoor landa motakoa izango da, eta eremu bat dauka sistema erradiatzailearentzat eta eremu bat ekipamenduentzat, dena 4,50 x 3,50 metroko hormigoizko lauza baten gainean, perimetroko hesi batekin eta sartzeko ate batekin.

Sistema erradiatzailearen euskarria 6 metroko masta bat da, profil biribilekoa (139,7 milimetroko diametrokoa), 3 x 3 metroko banaketa bankada karratu baten gainean. Mastaren gainean 3 metroko eta 60 milimetroko diametroko satelite bi ainguratuko dira, eta haietako batean panel motako antenan jarriko da eta bestean parabola.

Sistema erradiatzailearen egiturarentzako bankada autoeutsiaren ondoan 1,5 metro garai den portiko bat jarriko da behe-tentsioko koadro orokorra (BTKO) jartzeko, eta bankada bat “CF-PC” motako armairu batentzat, zeinak indar ekipoa, bateriak, irrati eta transmisio ekipoak gordeko baititu. Horrez gain beste jarduketa batzuk egingo dira ekipoen elektrizitatea elikatzeke eta, gainera, telefonia mugikorreko deien banagunea kokatzea proiektatzen den lurzatira sarbide ematen duen bidearen 30 metro inguru hormigoituko dira.

Telefono mugikorreko deien banagunea, beraz, hauek izango ditu:

- CF-PC aire zabaleko bastidorea, eremu librean jarriko dena, hormigoizko lauzan.
- 5212 oinarri-bandako ekipo bi, aire zabaleko bastidorearen barruan kokatuta.
- RRU irrati ekipo bi mastan kokatuta.
- CommScope RR-65B-R2 antena bat mastaren satelitean jarrita.
- Transmisio parabola bat, mastaren goialdean jarriko dena.

1.2. Ebaluatu nahi den eremu geografikoa:

Proiektatzen den dei banagunea lurzoru urbanizaezinean jarriko litzateke, Sobron herriko 1 poliginoko 434 lurzatian, Arabako Lantaron udalerrian (koordinatuak X: 490.573,17 / Y: 4.735.779,69 / Ardatza: 30). Banagunea Natura 2000 Sareko Valderejo-Sobron-Artzenako mendilerroa Kontserbazio Bereziko Eremua eta Hegaztientzako Babes Bereziko Eremua (KBE/HBBE) Naturgune Babestuaren barruan kokatuko da.



Telefono mugikorreko deien banagunearen gutxi gorabeherako kokapena Sobrongo 1 poligonoko 434 lurzatian (Lantaron)

1.3. Aztertutako aukerak:

Sustatzaileak aurkeztutako dokumentaziotik ondorioztatzen denez, bi aukera aurreikusi eta aztertu dira proiektu honetarako:

“0” aukera edo esku hartzerik gabea (ez da hautatu): oraingo egoeran utziko litzateke, eta horrek esan nahi luke ez litzatekeela aurrera egingo Araba probintziaren hego-mendebaldeko eremuarentzat telekomunikazio zerbitzuak hobetzen.

“1” aukera (hautatua): telefonia mugikorreko deien banagune bat jarriko litzateke Sobron herriko 1 poliginoko 434 lurzatian, halako moldez non estaldura emango litzatekeen eraikin eta eremu hurbilei efizientzia eta zerbitzu egokiek. Sustatzaileak argudiatzen du beharrezkoa

dela azpiegitura hori jartzea, eta horretarako aipatzen ditu sarbide onak, beste kokapen batzuen aldean, ez duela ia inpakturik, behar den azaleran ez delako zuhaitzik kendu behar, eta eraikita dagoen ingurune batean kokatzen dena, bertan txertatuta.

2. Kontsulta fasearen laburpena

Jarraian, kontsultatu zaien erakunde, entitate eta elkarten zerrenda jarri da, eta haietatik zeinek erantzun duen adierazi da:

URA – Uraren Agentzia	√
Eusko Jaurlaritzaren Kultur Ondarearen Zuzendaritza	√
Eusko Jaurlaritzaren Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritza	√
Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritza	
Arabako Natur Institutua	
Ekologistak Martxan Araba	
GADEN - Natura Babesteko eta Ikertzeko Arabako Taldea	
Eguzki talde ekologista	
Hontza	
GAIA elkarte	
Arabako Mendi Federazioa (Ingurumen Atala)	
UAGA - Arabako Nekazari eta Abeltzainen Elkarte	
IHOBE - Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa	
Arabako Kontzejuen Elkarte	
Aranzadi Zientzia Elkarte	
SEO Birdlife	
Sobrongo Administrazio Batzarra	
Lantarongo Udala	√
Añanako Kuadrilla	
Arabako Foru Aldundiko Mendi Zerbitzua	
Arabako Foru Aldundiko Museo eta Arkeologia Zerbitzua	√
Arabako Foru Aldundiko Ingurumen Kalitatearen Zerbitzua	
Arabako Foru Aldundiko Historia eta Arkitektura Ondarearen Zerbitzua	√
Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Zuzendaritza	√
Arabako Foru Aldundiko Lurralde Antolamenduaren eta Hirigintzaren Zerbitzua	
Arabako Foru Aldundiko Natura Ondarea Zaintzeko Zerbitzua	√

Hona hemen jaso diren erantzunetan adierazitakoaren laburpena (alegazio edo gogoeten kopia osoa dago Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuaren 20/125 espedientean eta www.araba.eus webgunean):

- Arabako Foru Aldundiko Natura Ondarea Zaintzeko Zerbitzuak bere txostenean proiektuak eragindako arearen ingurumen meritu nagusiak jasotzen ditu eta hauek nabarmentzen dira: Valderejo-Sobron-Artzenako mendilerroa KBE/HBBE (ES2110024), Euskal Autonomia Erkidegoan Batasunaren intereseko hegazti nekrofagoak kudeatzeko baterako plana aplikatzearen ondoriozko Interes Berezikoko Eremua eta Arabako Lurralde Historikoko paisaia berezien eta bikainen

katalogoko “Sobron-Bachicaboko mendiak” Paisaia Bikaina. Horri dagokionez, ingurumenean integratzeko hartu behar diren neurri batzuk zerrendatzen dira:

- Batasunaren intereseko habitaten gaineko eraginak ahalik eta gehien gutxitzea.
- Debekatuta daude lur mugimenduak, guztiz ezinbestekoa dena izan ezik.
- Debekatuta dago isuri, metaketa edo ibilgailu mota oro eremuan, horretarako jarritako tokietan izan ezik.
- Lanak amaitu ondoren garbiketa kanpaina zorrotz bat egingo da.
- Obrak hastean, astebete lehenago gutxienez, Natura Ondarea Zaintzeko Zerbitzuari ohar-taraziko zaio, ingurumen jarraipena egiteko (harremanetarako datuak ematen dira).

• URA – Uraren Agentziak bere txostenean adierazi du eskaera Ebroko Konfederazio Hidrografikoari helarazi zaiola, egokitzen joz gero gaiaren gainean informatzeko, betiere abenduaren 9ko 21/2013 Legeak, ingurumen ebaluazioari buruzkoak, ezarritakoarekin bat etorritik.

Ondoren, bigarren txosten bat eman du. Hor, ibilgu hidrografikorik hurbilenak eta jasan ditzaketen eraginak zehaztu ondoren, hau dio amaitzeko: “babestu, zuzendu eta konpentsatzeko proposatutako neurriekin, Lantaronen Sobron Altoko telefonia mugikorreko banagunea ezartzeak oso eragin txikia izango luke Agentzia honen eskumeneko alderdietan”.

• Arabako Foru Aldundiko Museo eta Arkeologia Zerbitzuak jakinarazi du orain arte ez dutela jakin goiburuko lurzatian aztarna edo egitura arkeologikorik dagoenik. Hala ere, zerbitzuak adierazi duenez, obrak egitean aztarna arkeologikorik aurkituz gero, horren berri eman beharko zaio berehala Arabako Foru Aldundiko Museo eta Arkeologia Zerbitzuari, bat etorritik Euskal Kultur Ondareari buruzko 6/2019 Legearekin.

• Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritzak hau jakinarazi du bere txostenean: “dokumentazioa aztertuta, jakinarazten dizugu proiektu horren eremuan ez dela eraginik sumatzen kultura ondarean”.

• Arabako Foru Aldundiko Historia eta Arkitektura Ondarearen Zerbitzuak esan du, proiektu horri dagokionez, ez duela aurreikusten eraginik kultura ondarean eta, beraz, Historia eta Arkitektura Ondarearen Zerbitzuaren ikuspuntutik ez dagoela eragozpenik hura izapidetzeko.

• Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Zuzendaritzak honako hau adierazi du, dokumentazioa aztertu ondoren:

– Arabako Lurralde Historikoko Landa Bideen Erregistroan inskribatutako landa bideei dagokionez, proiektuaren eragin eremuan ez dago erregistro horretan sartutako landa biderik.

– 434 lurzatia hein handi batean bizitegi lurzoru gisa dago zonakatuta nekazaritza eta basozaintzako LAParen arabera. Haren antolamendu esparrutik kanpo dago eremu hori. Lurzatiaren gainerakoa honela dago kalifikatuta: “Basoa-mendi bakandua”.

– Lurzoruak duen benetako okupazio urria kontuan hartuta eta haren sailkapenagatik, uste da proiektuak sortutako eragina ez dela esanguratsua, eta txostena aldekoa da.

• Lantarongo Udalak emandako txostenean, proiektuaren laburpen txikia egin eta Udalak jaso eta Arabako Foru Aldundiko Natura Ondarea Zaintzeko Zerbitzuak emandako txosten bat aipatu ondoren, ohar eta/edo iradokizun batzuk ondorioztatzen ditu. Egokitzen jotzen dira proiektuaren ingurumen agirian jasotako ingurumenean integratzeko neurriak, baina batzuk gehitu dira, paisaia eta landareen gaineko eraginak minimizatzen. Halaber, dokumentazio hau aurkezteko eskatzen da:

– “Jartzen amaitutakoan txostena aurkeztu beharko da egindako hondakinen kudeaketari buruz, horren frogagiriekin batera. (...).

– Banagune irratielektrikoak zerbitzuan jartzearen frogagiriak aurkeztu beharko zaizkio Ekonomia eta Enpresa Ministerioko Telekomunikazioen eta Informazioaren Teknologien Zuzendaritzari, ziurtatzeko sektorearen araudia betetzen dela, jendea orokorrean isuri irratielektrikoetatik datozen eremu elektromagnetikoen arriskuan jartzeko mugei dagokienez”

• Eusko Jaurlaritzako Natura Ondarearen Zuzendaritzak emandako txostenean, proiektuaren laburpena egin ondoren, natura ondarean duen eragina aztertu du. Alde batetik, esaten da gabeziak daudela ingurumen agirian, proiektuaren eremuan dauden landareen eta faunaren deskribapena egitean. Bestetik, “ahultasun” batzuk zerrendatzen dira, ingurumen agiria Natura 2000 Sareari buruz egiten duen analisiari dagokionez; izan ere, proiektuaren kokapena Valderejo-Sobron-Artzenako mendilerroa KBE/HBBEren (ES2110024) barruan dagoela berariaz ez aipatzeaz gain, ez da kontuan hartzen Valderejo-Sobron-Artzenako mendilerroa Naturgune Babestua antolatzeke plana izapidetzeko fasean dagoela eta behin-behineko onarpen agindua daukala. Horregatik, ondorioztatzen du ezinbestekoa dela proiektuak Valderejo-Sobron-Artzenako mendilerroa KBE/HBBEen izango dituen ondorioak aztertzea, eremuaren kontserbazio helburuak eta aplikatu beharreko araudia kontuan hartuz.

3. Proiektuak Natura 2000 Sarean izan ditzakeen ondorioen ingurumen balorazioa

Telefonia mugikorrek deien banagunearen proiektuak eragindako ingurumen eremu nagusia Valderejo-Sobron-Artzenako mendilerroa KBE/HBBE (ES2110024) da, Eusko Jaurlaritzaren martxoaren 15eko 47/2016 Dekretuaren bidez izendatu zena. Natura 2000 Sarearen barruan lotu beharreko gune bat da, babes neurri bereziak behar dituen dauden habitatak eta espezieak zaintzeko.

Babesgune Berezi horretan hauek dira zaindu behar diren funtsezko elementu nagusiak:

- Baso naturalak eta erdinaturalak eta haien lotutako intereseko fauna.
- Harpeak, harkaiztiak eta lotutako habitatak.
- Abifauna – Harkaitz, baso, larre eta mendiko espezieak.

Abifaunari dagokionez, eremu hori kudeatzeko neurriak Foru Gobernuaren Kontseiluaren ekainaren 6ko 345/2017 Erabakiaren bidez onartu ziren, eta haien barruan 6.4 helburu operatiboa nabarmentzen da (“Naturgune Babestuko harrapari harkaiztarren kumeak hazteko lekuen ingurunean lasaitasuna ziurtatzea eta produktibitatea handitzea lortzea”). Helburu hori bat dator “Euskal Autonomia Erkidegoan Batasunaren intereseko hegazti nekrofagoak kudeatzeko baterako plana” rekin. Plan hori maiatzaren 22ko 229/2015 Foru Aginduaren bidez onartu zen eta horren bidez Naturgune Babestuen Eremua Interes Berezikoko Eremu gisa eta ugatz (*Gypaetus barbatus*), sai zuri (*Neophron percnopterus*) eta sai arrearen (*Gyps fulvus*) Elikadura Babesteko Eremu gisa kalifikatuta dago. Kudeaketa planaren 9. artikuluan espezie bakoitzarentzako aldi kritikoak ezartzen dira. Hauek dira:

ESPEZIEA	ALDI KRITIKOA
Ugatza (<i>Gypaetus barbatus</i>)	azaroak 1 - maiatzak 15
Sai zuria (<i>Neophron percnopterus</i>)	martxoak 1 - irailak 1
Sai arrea (<i>Gyps fulvus</i>)	urtarrilak 1 –abuztuak 15

Gainera, eta irailaren 28ko 612/2001 Foru Aginduaren bidez (ALHAO, 120. zenbakia, 2001eko urriaren 22koa) onartutako Bonelliren arranoa (*Aquila fasciata*) kudeatzeko planaren arabera, Valderejo-Sobron-Artzenako mendilerroa KBE/HBBE interes berezikoko eremua da espezie horrentzat, eta ugaltzeko aldi kritiko bat ezartzen da otsailaren 1etik uztailaren 15era.

Ildo horretatik, ingurumen agiriak, 12. puntuan (“Babestu, zuzendu eta konpentsatzeko neurriak”), zehazki faunari buruzko 12.5 epigrafean, babesteko neurri hauek ezarriko direla dio:

- “Lurraldean espezie sentikorrek hautematea, berariazko neurri egokiak bideratzeko”
- “Espezie sentikorrek ugaltzeko aldiak kintuan hartzea”

Ildo horretatik, eta sustatzaileak berak bere ingurumen dokumentuan jaso dituen ingurumenean integratzeko neurriekin bat etorritik, proiektatutako obrak, gutxienez ingurumenean hots ondorioak eragin litzaketen soinu igorpenak dakartzatenak, proiektuaren eremuan maizen egoten diren abifauna espezieak ugaltzeko aldi kritikotik kanpo egiteko eskatuko da.

4. Ingurumen ondorio nagusiak

Ingurumen agirian, zehazki 10. puntuan (“Eraginen balorazioa”), proiektuaren ingurumen eraginen analisia egiten da, bai jartzeko, bai jarduteko, bai uzteko fasean. Uste da egindako eraginen balorazioa egokia dela, baina osagabea, ez dituelako aintzat hartu proiektuak ezartzeak proiektuaren egikaritze eremuaren inguruko ingurumenean eragingo litzukeen ingurumen ondorio kaltegarri guztiak batera. Nolanahi ere, eta oso laburbilduta, hemen azpimarratuko dira proiektuaren ingurumen inpaktu nagusiak. Horretarako hitzez hitz hartu dira sustatzaileak egindako ingurumen agirian bertan jasotako eduki batzuk:

Natura 2000 Sarea eremua: Txosten honen aurreko puntuan xehetasunez azaldu denez, proiektuaren ingurumen inpaktu nagusia Valderejo-Sobron-Artzenako mendilerroa KBE/HBBE (ES2110024) Naturgune Babestuari eta hark gordetzen dituen ingurumen balio eta elementuei eragin liezazkiekeen ondorioak dira. Nolanahi ere, txosten honen hurrengo puntuan azaltzen diren ingurumenean integratzeko neurriak ezarritik, usta da proiektuaren inpaktuak bateragarriak liratekeela Natura 2000 Sarea eremuarekin.

Abifauna: Valderejo-Sobron-Artzenako mendilerroa KBE/HBBE ugatz (*Gypaetus barbatus*), sai zuri (*Neophron percnopterus*), sai arre (*Gyps fulvus*) eta Bonelliren arranoaren (*Aquila fasciata*) Interes Berezikotako Eremu eta Elikadura Babesteko Eremu gisa kalifikatuta dagoenez gero, ahal den heinean, abifauna espezie horiek ugaltzeko aldi kritikotik bete behar dira, txosten honen aurreko puntuan zehaztutako erreferentziako araudia kontuan hartuz.

Paisaia: Arabako Lurralde Historikoko paisaia berezi eta nabarmenen katalogoaren arabera (Diputatuen Kontseiluaren irailaren 27ko 829/2005 Erabakiaren bidez onartu zen), proiektuaren jarduketaren eremua “Sobron-Bachicaboko mendiak” Paisaia Bikainean dago (11 kodea). Horretatik, paisaiaren aldagaiak garrantzia hartzen du sortuko litzukeen inpaktuei dagokionez, eta ingurumenean eta paisaian integratzeko neurriak ezartzea eskatzen du horrek. Ildo horretatik, ingurumen agiriak berak dio jarduteko fasean “eremuan elementu antiestetikoak sartzearen ondorioz balio estetikoaren duen berezko paisaia bat galduko” dela.

Landaretza: Ingurumen kartografiak adierazten du proiektuaren eragin eremuan “*Brachypodium pinnatum* duten larre mesofiloak” 92/43/EEE Zuzentarauko Batasunaren intereseko habitata dagoela. Tokia bisitatu ondoren, egiazta daiteke habitat hori sakabanatuta dagoela telefono mugikorreko deien banagunea jartzea proiektatzen den tokiaren ondo-ondoko ingurunean. Nolanahi ere, eta ingurumen agirian esaten denez, eragindako landaretza oso urria litzateke, eta gainera erantsi behar da habitat hori nahiko zabaldua dagoela eskualdean. Halaber, 434 lurzatian intxaurrondoren (*Juglans regia*) bat dago eta zuhaixka landareak, hala nola ezpela (*Buxus sempervirens*). Ingurumen agiriak berak jasotzen duenez, prebenitzeko eta zuzentzeko neurriak ezarri behar dira landareak jasan litzakeen kalteak arintzeko, zuinkatzeak eragin litzakeen landatuz berritzearaino joango liratekeenak.

Frekuentzia altuko mailen isurpena: Frekuentzia altuko mailen isurpenaren inpaktua moderatu gisa dago tipifikatuta sustatzaileak aurkeztutako dokumentazioan bertan, eta hari buruz, hau esaten da ingurumen agirian 10.2 puntuan: “frekuentzia altuko seinaleen igorpen mailak handitzen dira” proiektuaren jarduteko fasean. Horri dagokionez babestu edo zuzentzeko

neurririk aurkeztu ez arren, egokitzen jotzen da sustatzaileak horri buruz Lantarongo Udalak txosten honetako ingurumen inpaktuaren ebaluazio erraztuko prozedurako kontsulta faseko alegazio txostenean zehazten duen neurria hartzea. Haren arabera, sustatzaileak banagune irratielektrikoak zerbitzuan jartzearen frogagiriak aurkeztu behar dizkio Ekonomia eta Enpresa Ministerioako Telekomunikazioen eta Informazioaren Teknologien Zuzendaritzari.

Azkenik, esan behar litzateke proiektua gauzatzeak eragin onuragarria izango lukeela inguruko herritarrengan; izan ere, emandako telekomunikazio zerbitzuari esker herritarrek orokorrean informazioa eskuratuko lukete, eta ingurune hurbileneko enpresa sarearen lehiakortasuna handituko litzateke.

5. Neurri babesle eta zuzentzaileak

Ingurumen dokumentuaren 12. puntuan (40. orrialdea) -"Babestu, zuzendu eta konpentsatzeko neurriak"-, proiektua ingurumenean integrazteko zenbait neurri jasotzen dira, bai prebentiboak eta bai zuzentzaileak. Egokitzen jo ditugu neurri horiek, eta, beraz, bidezkoa da haiek ezartzea, aipatutako ataletan deskribatutako eran. Nolanahi ere, neurri horiez gain, jarraian aipatzen ditugun neurri osagarriak hartu behar dira, eraginpeko eremuan ingurumen ondorio negatiborik izan ez dadin edo ondorioak ahalik eta txikienak izan daitezten. Hona hemen:

A) Obren aurreko zuinketarako data ezarri eta haien ingurumen jarraipen egokia egiteari begira, ezinbestekoa da haren hasieraren berri ematea, astebete lehenago gutxienez, Valde-rejo-Sobron-Artzenako mendilerroa KBE/HBBEren (ES2110024) Natura 2000 Sarea eremua kudeatzen duen organoari (Arabako Foru Aldundiko Natura Ondarea Zaintzeko Zerbitzuarekin harremanetan jartzeko datuak: 945 18 18 18 eta/edo biodiversidad@araba.eus).

B) Lanak hasi aurretik obra eremua balizatuko da telefonia mugikorreko deien banagunea eraikitze esku hartze eremutik kanpo jendea, makinak eta material metaketak mugitzea ekiditeko. Balizak proiektuaren sustatzaileak eta Natura 2000 Sarea eremua kudeatzen duen organoak jarriko dituzte batera.

C) Aurreikusitako jarduketak maiatzaren 22ko 229/2015 Foru Aginduaren bidez onartutako Euskal Autonomia Erkidegoan Batasunaren intereseko hegazti nekrofagoak kudeatzeko baterako planaren zonakatzearen barruan daudenez gero, ahal den heinean, proiektatutako lanak espezie horiek ugaltzeko aldi kritikoetan egitea saihestu behar litzateke. Zehazki, derrigorrez egingo dira sai zuriak, Bonelliren arranoak eta sai arreak kumeak hazteko alderik sentikorrenetatik kanpo (urtarrilaren 1etik abuztuaren 15era bitartean).

D) Telefonia mugikorreko deien banaguneak eta itxitura perimetralak eragin txikia aurreikusi beharko dute paisaia eta, beraz, natura ingurunearekin bat datozen tonu berdexketan margotu edo estali beharko dira.

E) Proiektua gauzatzeko behar diren lurrak edo materialak metatzeko edo makinak erabiltzeko, alde aurretik Natura 2000 Sarea eremuaren Arabako Foru Aldundiko organo kudeatzailearen eta ingurumen organoaren baimena beharko da, kokalekuen egokitasuna ebalua dadin eta neurriak ezar daitezten inpaktuak minimizatzeko eta ingurumena leheneratzeko.

F) Obrek irauten duten bitartean, lubrifikatzaileak edo erregaia biltegitzeko ontzi estankoak, biltegi iragazgaitzak edo beste sistema batzuk erabiliko dira. Debekaturik dago erabiltzekoak isurtzea; baimendutako kudeatzaile bati eman behar zaizkio horiek. Debeku hori beste hauetara ere hedatzen da: hormigoi hondakinak, eraikuntza materialak, lurrak eta abar; horiek guztiak hondakin degi edo zabortege baimenduetara eraman beharko dira. Sor daitezkeen eraikuntza eta eraipen hondakinak kudeatzeko, ekainaren 26ko 112/2012 Dekretuak, eraikuntza eta eraipen hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzen dituenak, ezarritakoa bete behar da.

G) Proiektua sustatzen duen enpresak behar diren garbiketa lanak egingo ditu jarduketaren eremuan; horrez gain, eraikuntza lanek eragindako lurretan ingurumena leheneratzeaz arduratu beharko da. Ingurumena leheneratzeko lan horien barruan, zeregin hauek egin beharko dira nahitaez:

– Telefono mugikorreko deien banagunea eta sarbideak egiteko okupatu behar den landare lurhari dagozkion lurzoru horizonteak era selektiboan kendu beharko dira; komenigarria da haiek berehala birbanatzea edo, hori posible ez izatekotan, proiektuaren eremuko lekuren batean metatzea, zuhaixkarik edo zuhaitzik hondatu gabe. Gehienez 2,5 metro garai izan daitezkeen sekzio trapezoidaleko multzotan egin behar da pilaketa. Obrak eragindako eremuetan landaretza leheneratzeko eta lurzoria birjartzeko egin behar diren lanetan erabiliko da landare lurra, edota finka edo mendi mugakideetako lurzoria hobetzeko.

– Lurra behar bezala moldatu eta taxutu indusketa lanak egin diren eremuetan, jatorrizko profil topografikoa berreraikitzeke eta aldatutako gainazalak ingurunera fisiografikoki egokitzeko. Lurra eskarifikatu eta destrinkotu, sakonera egokian.

– Kalitate oneko landare lur geruza bat eman, gutxienez 30 cm-koa, telefono mugikorreko deien banagunearen inguruko lurretan, geroago leku horietan landareak haziko direla ziurtatzeko.

– Aldez aurretik substratua prestatzeko lanak egin: lurra landu, harrotu eta xehatu, behar bezala utzi arte.

– Ereite edo hidroereite bidez belarki estalkia ezarri, landare estalki naturala duten eraginpeko zonetan eta eraiki den hesitik hurbilen dagoen inguruan. Horretarako, soropil espezie gramineoen eta lekadunen nahastea erabiliko da, eremu horretako klimarako eta lurzoru motarako egokia.

– Deien banagunearen itxitura perimetral osoaren inguruan zuhaitzak landatu, hesia eta etxola ezkutatu ahal izateko. Inguruetan espezie horretako zuhaitzak landatuta daudela kontuan izanik, pinu gorria (*Pinus sylvestris*) izango litzateke aukerarik egokiena eta lortu nahi diren helburuak beteko lituzke.

H) Instalazioak erabiltzeko epea amaitzen denean, enpresak eraitsi eta guztiz kenduko ditu. Hondakinak zabortegira edo aurreikusitako lekura eramango ditu, eta okupatuta egon den lurra leheneratu egingo du, jatorrizko egoerara itzul dadin. Kokalekua leheneratzeko lanetan, nahitaez, epigrafe honetako G) apartatuan adierazitako zereginak egin beharko dira, hurrenkera berean: lurra mugitu, moldatu eta taxutu, profila berreraikitzeke eta aldatutako gainazalak ingurunera fisiografikoki egokitzeko; lurra eskarifikatu eta destrinkotu, sakonera egokian; kalitate oneko landare lur geruza bat eman, gutxienez 30 cm-koa, eragindako gainazal guztietan; lurra landu, harrotu eta xehatu, behar bezala utzi arte, eta azkenik, ereite edo hidroereite bidez belarki estalkia ezarri.

I) Komenigarritzat jotzen da foru aldundi honetako Natura Ondarearen Zerbitzuak eta Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuak ingurumen arloko jarraipena egitea era koordinatuan, bai eraikuntza aldundiaren eta bai lanak amaitzean; horri esker, ingurumena leheneratzeko ezarri diren neurrien eta neurri zuzentzaileen eraginkortasuna ebaluatuko da, eta gabeziak antzemanaz gero, zuzendu ahal izango dira. Horri dagokionez, jarduketak bukatu ondoren, Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuari jakinaraziko zaio, ezarritako ingurumen neurriak ondo bete diren egiazta dezan.

Horrenbestez, abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak, Arabako Foru Aldundiaren Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoari buruzkoak, 40. artikuluan ematen dizkidan eskurantzak erabiliz,

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. "Telefono mugikorreko deien banagunea Sobrongo 1 poligonoko 434 lurzatian (Lantaron) jartzeko proiektua" ren ingurumen inpaktuari buruzko txostena formulatzea.

Bigarrena. Abenduaren 9ko 21/2013 Legea, ingurumen ebaluazioarena, betetzeko, ingurumen inpaktuaren txostenak ingurumen erabaki loteslearen ondorioak izango ditu proiektua gauzatzeko neurri eta baldintzei dagokienez.

Hirugarrena. Ingurumen inpaktuaren txosten hau ALHAOn argitara dadila agintzea.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko otsailaren 18a

Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatua
JOSEAN GALERA CARRILLO

Ingurumen eta Hirigintza zuzendaria
NATIVIDAD LÓPEZ DE MUNAIN ALZOLA